

ABESTIA

- Entzun abestia.

Balearen bertsoak

Mila bederatziehun
(e)ta lehenengo urtean,
maiatzaren hamalau-
garren egunean,
Orio herriko
barraren aurrean
balea agertu zen
be(der)atzi(a)k aldean.

Handia bazen ere,
azkarra ibilian,
buelbaka han zebilen
joan (e)ta etorrian;
hondarra harrotuaz
murgil-igerian:
zorriak zeuzkan eta
haiek bota nahian!

- Aukeratu. Nolakoa da abestiko balea?

Handia da eta azkar dabil batetik bestera, joan etorrian.

Handia da eta geldi-geldirik dago portuaren aurrean.

- Osatu albistea.

BALEA BAT KOSTALDETIK GERTU

Noiz?

Non?

Zer ordutan?